Bidasoa eskualdeko kontsumo elkartea.
Ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzeko puntua, agroekologia indartuz.
2017ko abendua

JATORRIA - HISTORIA:

2006 inguruan zonaldeko jende batzuk elkartzen hasi ziren produktu ekologikoen erosketa amankomunak egiteko: zerealak, lekaleak, xaboiak… produktu iraunkorrak orokorrean. Hilabetero erosketa amankomuna egiten zuten, eta beraien artean banatzen zituzten produktuak. 20 familia inguru ziren eta horrela sortu zen Bidazi elkartea.

Momentu batean, ikusiz geroz eta jende gehiago zegoela ekimenean interesaturik eta bertze gisako produktuak (freskoa...) lortzeko aukera bultzatzeko, formatua aldatzea proposatu zen. Taldean parte hartzen zuten zenbait lagun Iruñeako Landare kontsumo taldeko bazkide ziren, eta zonaldean antzeko proiektu bat martxan jartzeko proposamena atera zen.

Momentu horretan jende berria gehitu zen proiektura, eta gaur egungo Bidazi forma hartzen hasi zen: produktu ekologikoak eta bertakoak lortu ahal izateko espazio fisiko bat, ekoizle eta kontsumitzaileen elkargune, zonaldeko baserritarrentzat salmenta puntu, gaiaren inguruko sentsibilizazioa…

Herriz herri bilerak egin ziren, proiektua aurkeztu eta bazkideak egiteko, eta horrela, 2014ko udaberrian gaur egun ezagutzen dugun Azokak ateak ireki zituen, 50 bazkide ingururekin.

HELBURUAK

Bidaziren helburua elikagai osasuntsuak, gertukoak, kalitatezkoak eta bidezkoak bultzatzea da, bai ekoizpenean bai kontsumoan. Horretarako Azoka sortu dugu, produktu hauek saldu eta erosi ahal izateko gunea.

Elkarte bat izanik, eskualdean eragitea eta bazkideen parte hartze aktiboa bilatzen dugu, agroekologia eta elikadura burujabetza indartzeko.

Nori zuzentzen garen?

-Familiak/pertsona indibidualak: elikadura osasuntsua eta gertuko produktuak nahi dituztenak. Gure baserritarrak indartu nahi dituztenak.

-Zonaldeko baserritarrak edo lehen sektorean hasi nahi duen jendea. Beraien produktuak saltzeko gune bat sortuz.

-Jantokiak (eskolak, zahar etxeak…), kalitatezko eta gertuko produktuak nahi dituztenak.

-Otorduak antolatzen dituzten taldeak (herri bazkariak, udaletxeek eskainitako aperitiboak, eskolek antolatutako otorduak…)

-Kalitatezko eta gertuko produktuak eskaini nahi dituzten jatetxe edo ostatuak.

-Beste ildoetan lan egiten duten mugimendu sozialak, aliantzak eta elkarlanak egiten ahal baitira.

EGUNGO EGOERA

Egun 176 bazkide gara Bidazin. Beran daukagu Azoka eta bi langile daude jornada erdian lanean. 1.000 produktu inguru daude Azokan, ia ia erosketa saski guzia. Zonaldeko ekoizleentzat salmenta puntu bat gehiago da, eta aldi berean, eskualdeko eragile gisa ere funtzionatzen dugu, gauza desberdinak antolatuz eta ekimenetan parte hartuz. Bidazik bertze ekonomia eredu baten adibide izan nahi du.

BARNE ANTOLAKETA

Bidazi elkarte moduan antolatzen da. Azokan erosketak egiten dituzten pertsona guztiak elkarteko bazkide dira, baita soldatapeko langileak, zuzendaritza batzordeko kideak eta gainerako lan taldetan parte hartzen duten pertsonak ere. Azoka hornitzen duten ekoizleetako batzuk ere (zonaldekoak direnak), elkarteko bazkide dira.

Zuzendaritza batzordea 7 pertsonaz osatzen da, eta elkartearen nondik norako orokorraz arduratzen da. Hilean behin elkartzen da bilera irekietan: zuzendaritza batzordeko kideak, langileak eta bazkideak elkartzen dira.

Urtean behin asanblada orokorra egiten da bazkide guztiekin, zuzendaritza berritzen da eta urteko plangintza edo landu beharreko gai potoloak eta erabaki estrategikoak zehazten dira.

Bazkideen parte hartzeari dagokionez, bazkideek elkarteari eskaintzen dioten auzolana gure filosofiaren oinarrietako bat da. Hori burura eramateko, martxan daramagun denboran antolaketa modu desberdinak entseatu dira, momentu bakoitzean gauza batek edo besteak funtzionatu baitu. Azoka ireki zen momentuan, oraindik ez zegoen soldatapeko langilerik, eta bazkideak arduratu ziren Azokaren kudeaketaz. Ondoren, langileak egonda ere, bazkide asko izan dira Azokan lan egin dutenak atenditzen, produktuak antolatzen, garbitzen…

Momentu batzuetan bazkidez osatutako zenbait lan-talde egon dira: Azoka taldea, komunikazio taldea, ekintzen taldea, web gunea-informatika…

Azken fasean zenbait lan multzo zehaztu dira (Azoka txukuntzea, inbentarioa, obrak, itzulpenak, ekonomia, informatika, komunikazioa…) eta bazkideak lan multzo horietako batean apuntatzen dira, behar denean lanerako deitzeko.

ERAGIN SOZIALA

> *Ekoizleak eta hornitzaileak:*

Bidazin produktu ekologikoak eta ahalik eta gertukoenak aurki daitezke. Bidasoaldea da gure zonalde gertukoena, eta bertako ekoizleak bilatzen saiatzen gara, hortik landa, zenbait produkturako Nafarroa hegoaldeko ekoizleengana jotzen dugu (ardoa, olioa, etab.) edo estatu mailara (zitrikoak…). Beste zenbait produkturentzat zaila egiten zaigu ekoizleekin harreman zuzena egitea (nahiz eta horretan lanean gabiltzan) eta hornitzaile bidez lan egiten dugu. Baina helburua beti da ekoizleekin harreman zuzena izatea, mozkin ahalik eta handiena beraientzat izan dadin.

Helburua zonaldeko ekoizpenak indartu eta haientzako babes gune bat izatea denez, bertakoa-ekologikoa eztabaida behin eta berriz pizten da bazkideen artean, eta bi elementu horiek ahalik eta modu integralenean bat egiteko moduak saiatzen gabiltza.

Energia hornikuntzari dagokionez, Goiener kooperatibarekin lan egiten dugu, eta gainera, Bidaziko lokala eskualdean Goienerri buruzko informazio puntua da (hilabetean behin Goinerreko kide bat egoten da bertan).

> *Lizentzia askeak:*

Bidazin software askea erabiltzen dugu (Linux/Ubuntu), eta Azokarako erabiltzen den programa ere OpenRP da (Árbore). Gure filosofia jarraituz, ezagutza libre eta parekidean sinesten dugu, eta horregatik lizentzia askeak hobesten ditugu. Ildo horretan lanean jarraitu nahi dugu, baina askorentzat oraindik ere mundu ezezaguna izanik, gure ahalmena momentuan inplikatuta dauden bazkideen ezagutzetara mugatzen da.

> *Gardentasuna:*

Gardentasuna eta komunikazioa hasieratik gure oinarrietako bat da. Norbait bazkide egin baino lehen, Azokara etortzea eskatzen dugu, tokia eta funtzionamendua ezagutzeko, informazio osoa emateko, galderak egin ahal izateko... Elkartearen eta pertsonaren arteko elkar ezagutza bat dago bazkide egin aurretik.

Urteko batzar orokorrean kontuak aurkezten dira. Zuzendaritza Batzordeak egiten dituen bilerak bazkide orori irekiak dira. Azoka elkargune puntu bat den neurrian ere, informazio truke zabala dago bertan.

E-mail bidez Azokako eguneroko informazioa, ekintza puntualen abisuak edo elkartearen nondik norakoen berri ematen da. Gainera, hilabetean behin “boletin” bat bidaltzen zaie bazkide guztiei e-mail bidez, hilabeteko notiziak edo elkartearekin zerikusia duten albiste interesgarriekin. Horrez gain, bazkideen arteko e-mail sare bat dago, edozein bazkidek gainerakoei mezuak helarazi ahal izateko, eta informazio gune birtual gisa funtzionatzen du.

Web gunearen bitartez “kanpokoekin” gehiago partekatzeko aukera izan nahiko genuke, baita prentsan presentzia handiagoa izanez ere.

> Finantza kudeaketa:

Bidaziren diru iturriak bazkideen kuotak eta Azokako aktibitatea dira. Lerro kreditu bat daukagu bankuarekin, baina mailegurik ez, eta ez gaude zorpetuak.

Azoka ireki zenean, diru kopuru handiagoxea behar zela eta, “bono” batzuk atera ziren bazkideek ekarpenak egin ahal izateko, baina ondoren itzuliz joan dira kuotetatik deskontatuz.

Momentu batean diru bilketa edo Crow-founding bat ere egin zen, hozkailuak erosi ahal izateko. Diru bilketa “Goteo” plataformaren bidez egin zen, eta 3.000€ bildu ziren.

Hasiera batean LaCaixa bankuarekin lan egiten genuen, baina ondoren, Fiare, Coop 57 eta antzeko egitasmoek finantza munduari buruz kontatzen digutena ezagutu eta bankuz aldatzea erabaki genuen. Orain Caja Ruralekin lan egiten dugu, bankuek gizartearekiko duten ardura kontutan izanik, iruditzen zaigulako hau dela behar ditugun zerbitzuak kontutan izanik, gure baloreekin gehien bat datorrena.

> Kohesioa soziala: eraldaketa soziala/saretzea:

Saretzea eta elkarlana bide emankorra iruditzen zaigu, hortaz zonaldeko zenbait eragilerekin saretu edo lan egiten dugu:

>Arantzako eskolako jantokia Bidaziko produktuekin hornitzen da.

>Urruñako Biotzez kontsumo elkarteak beren ekoizleen bidez lortu ezin dituzten produktuak Bidaziren bitartez lortzen ditu.

>Berako Gure Txokoa elkartearekin elkarlanerako akordioa egin zen (Bidazik Gure Txokoako lokala erabil dezake, eta elkarteko ostatuan Bidaziko produktuak eskura daitezke mozkin oso baxuan).

>Zonaldeko eragileekin ekimen puntualak antolatu izan dira (IKA, Goldatz, kultur elkarteak…)

>Zonaldeko topaguneetan parte hartzen da (Lesakako feriak, Lurraren eguna)

>Eskualdeko zenbait azokatan parte hartu izan da (Bioterra, Alternatiben Eguna Donibane…)

>Ekokontsumo federazioaren parte da.

>EHKolektiboaren parte da.

>Koopfabrikan parte hartu zen, eta hortik sortutako Agrosaretzearen parte da beste zenbait kontsumo talderekin batera (Oarso Labore, Txingudi Labore, Erein da jan)

>Elkarrekin Ekin (Bidasoa) ekimenaren parte.

Gainera, Bidazi tokiko ekoizleak eta lurralde antolaketa indartzeko elementua ere bada, bazkideen artean elkar saretu eta ezagutzeko, proposamenak zabaldu eta trukatzeko espazio gisa. Horrez gain, bazkideez haratago publiko zabalari zuzendutako ekimenak ere antolatzen dira (hitzaldiak, tailerrak, irteerak…) eta eskualdeko prentsan ere presentzia izaten saiatzen gara.

> *Euskara:*

Euskara Bidaziren hizkuntza izatea taldean hausnarturiko kontu bat da. Bertako ekoizpena eta ekonomia indartu nahi dugun neurrian, euskara ere gure hizkuntza eta errekonozitu eta indartu beharreko eremua dela uste dugu. Euskara da elkartearen hizkuntz ofiziala. Hala ere, eguneroko harremanetarako gaztelania eta frantsesa ere erabiltzen dira, euskara ulertzen ez duten bazkideak ditugun neurrian, eta bileretan ere, euskara ez dakien jendea egotearen kasuak eman direnean, momentuko itzulpenak egin dira. Bazkide egiteko orduan, bakoitzari galdetzen zaio zein hizkuntzatan jaso nahi duen informazioa.

“.org” erabiltzaile izatetik “.eus” erabiltzailera aldatu ginen.

> *Eskualdea:*

Gure bazkideez haratago, eskualde osoarengana iristen saiatzen gara. Horretarako hitzaldiak, tailerrak, irteerak antolatzen ditugu, eta eskualdeko komunikabideetan parte hartzen dugu.

INGURUMENEAN ERAGINA

Lehenengo sektorea sustatzea helburu dugun neurrian, irizpide argia da ekoizpenak jasangarria eta ekologiako izan behar duela, lurrari eta eskualdeari lotua.

Elkarte bezala ingurumenean dugun eraginari begira, konturatzen gara garraio aldetik ia denak kotxez etortzen garela. Alde batetik edozein herrigunetatik nahiko aparte gaude, eta bestetik, egia da erosketak egiteko aunitzetan autoa beharrezkoa dela.

Hala ere, saiatu izan gara autoaren erabilera hori murrizten, adibidez, herri bateko bazkideak beraien artean antolatu eta bakarra etorriz zenbaitzuren erosketak egitera, edo erosketak telefono edo e-mail bidez egin, eta gero pertsona bakarrak bizpahirurena bildu eta eramanez.

Horrez gain, konpostera bat daukagu Azokan galtzen diren produktuak konpostatzeko, eta kaxak eta paperezko poltsak berrerabiltzen dira. Ez daukagu plastikozko poltsarik.

Azokan ditugun hozkailuak bigarren eskukoak dira, tolbak Landarek emandakoak, balda eta mostradoreak bazkideek egindakoak dira, ahalik eta produktu gehien granelean ekartzen dugu, eta esnea ere berrerabiltzen diren kristalezko botiletan.

Ikusi Bidaziri buruzku erreportaiak Hamaika telebistan:
http://www.hamaika.eus/tb/bideo/10003114
http://www.hamaika.eus/tb/bideo/10003113

Ikusi hemen lizentzia aske honen informazioa:https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/legalcode.eu

Dokumentu hau bere osotasunean edo partzialki erabiliz gero, ondoko sinadura erabili jatorrizko egilea izendatzeko: Bidazi Elkartea CC-BY-SA